

**Astigarragako EMAKUMEON ETXEA**  
**HAUSNARKETA SAIOEN EMAITZAK**  
**2024ko irailaren 19an eta 26an**

**a) Nolakoa izan da hiru urteetako ibilbidea: alde nabarmenak eta ezkorrak?**

Balioan jarri nahi dugu Emakumeon Etxea jendeak osatzen duela. Bazkideek eta modu batera edo bestera hemen parte hartzen duten emakumeek. Haien lana eta borrokari esker egin dugu orain arteko bidea.

Asko hazi da proiektua sortu zenetik eta oraindik ere hazten jarraituko du. Espazioa txiki geratzen ari zaigula ere behin baino gehiagotan ikusi da.

**b) Hiru urteren ostean egindako hausnarketa saioek zer eman dute? Parte hartzea, talde indartzea, agenda feministaren funtsezko gai zerrenda (ahalduntzea, zaintza lanak...) Konklusiorik?**

Hausnarketa saioak batez ere etxearekiko dauden inpresio eta uste faltsuak mahai gaineratu ditu. Oraindik herritar askok ez dakite zertarako den eta zer egiten den Emakumeon Etxean eta gure agendan erronka hau birkokatzeko beharra sumatu dugu. Borroka feministaren egungo egoeraz eta jarrera erreakzionarioz ere hausnartu dugu eta berriro ere formakuntzaren beharra azpimarratu da.

Informazio oso baliagarria bildu dugu eta lanerako zenbait gako garrantzitsu jaso ditugu. Bidea luzea da baina noranzko onean goazela ikusi dugu. Gogotsu gaude. Orain erronkak identifikatu, estrategiak garatu eta pausuak ematea tokatzen zaigu. Proiektu ugari ditugu buruan eta jendearen ekarpena eta inplikazioa beharrezkoak dira.

**c) Zein da zuentzako gaur egungo lerro estrategikoa edo nagusia emakumearen ahalduntzean?**

Emakumeen ahalduntze prozesua indibidualetik kolektibora eramaten saiatzen gara. Indibidualismoa nagusi den gizartean, antolatu eta elkarrekin borrokatu behar dugu. Zapalkuntzek forma ezberdinak hartzen dituzte eta guztiek zeharkatzen gaituzte. Ikuspegi interseksionala txertatzen saiatzen gara eguneroko lanean. Ulertzen baitugu generoak, egoera ekonomikoak, adinak, kulturak, arrazak, orientazio sexualak, eta bestelako faktoreek leku bat inposatzen digutela gizartean. Eta guztien borroka izan behar du lekua eraiki nahi dugun gizarte feministan.

Besteak beste, norberak duen jakintza elkarbanatu, formatu, gure eskubideak ezagutu eta hauen jabe egin, emakumeen kontrako indarkerian prebentzio, identifikazio eta bideratze lanak egiteko espazioa da. Baita elkar laguntza eta auzolana sustatzekoa eta elkarrekin borrokatzekoa.

**d) Zuek eskaintzen duzuen Etxearen gunea nola bizitzen ari da herrian eta zer suposatzen ari da zuen ahalegina Astigarragako emakumeentzat?**

Emakumeon Etxea proiektu zabala da, osasun emozionalari zuzenki loturikoa. Ezinbestekoa da epairik gabeko espazioak sortzea eta esango genuke lortzen dugula. Datozen emakumeak eroso sentitzen dira, etxean, eta haien lekua dela sentitzen dute. Jendearekin zuzenean lan egitea gustatzen zaigu, gertuko harremanak sortuz. Herriko hainbat emakumerentzat ez da erraza konfiantzazko harremanak eraikitzea eta ezin da ahaztu hau oinarritzko behar bat dela. Horregatik sareak sortzeari garrantzi berezia ematen diogu eta baita dibertitzeari ere.

**e) Zer eskatzen diozue herriari: kontzientzia, laguntza, lankidetzeta, inplikazioa, aske izatea...?**

Herriari batez ere aurreiritziak albo batean uztea eskatzen diogu. Etxera beldurrik gabe gerturatzea eta espazioa eta proiektua ezagutzea. Jabekuntza Eskolan eta bestelako ekintzetan parte hartzera ere animatu nahi ditugu, sorpresa ugari jaso baititzakete.

Emakumeon Etxeko elkartean parte hartzen dugunok, dinamizatzaileraz gain, boluntarioki egiten dugu lan. Lan-taldeetan antolatzen gara: programazioa, komunikazioa, kale dinamika, ekonomia, harrera sarea, azoka, baratza, ... Guztion artean sortu eta eraikitzen den proiektua da. Asko ematen du eta ematen jarraitzeko, jaso ere egin behar du. Guztion eskuak behar ditugu Etxearen erronkei erantzuteko eta, beraz, herriari inplikazioa eskatzen diogu. Bakoitzak dakienetik eta ahal duenetik, laguntza oro baita baliagarria. Astigarraga feminista eraikitzeko herritar guztion lana beharrezkoa da.